

ARARTEKO



1999ko martxoan

EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 1998-LABURPENA

Ararteko erakundea: 10 urte administrazioaren aurrean euskal herritarrak defendatzen

Administrazioaren aurrean herritarrak defendatzeko eginkizun bizigarria duelarik, beti zaio eder Arartekoari, Legebiltzarraren goimandatar honi, urte osoko jardueraren kontuak erakunde honen aurrean emateko zeregin demokratikoa betetzea. Zeregin hori, ordea, bereziki atsegina gertatzen da oraingoan, berriki hamar urte bete baitira Ararteko erakundeak lanean diharduela. Era berean, une egokia dela deritzot aldizkari hau argitaratzeari ekiteko, urtean behingo maiztasunaz, Legebiltzarrerako txostenaren laburpen bat gizartearen ezagutzera emateko helburuaz. Arartekoaren jardueraren alderdi garrantzitsuenak jaso nahi ditugu haren bidez, soil-soilik.

1989ko martxoaren 8an zerbait berriari ekin zitzaion, zeretik hasita. Lau urte aurretik, Eusko Legebiltzarraren Legearen bitartez sortu eta arauturiko Ararteko erakundeak bere ibilbideari ekin zion orduan. Martxoaren 8 hartatik hona 11.809 kexa jaso dira euskal administrazio publikoaren jardunari dagokionez, horietatik 2.660 joan den 1998. urtean.

Argitalpen honetan Arartekoak herritarren eskubideen defentsan egindakoaren erakusgai bat jasotzen dugu. Gizabanako konkretu eta egiazkoen egoera konkretu, askotariko eta ia beti berezien bidez. Baina administrazio bakoitzaren jarduerari buruzko balioespen orokorragoak ere jasota daude, eta haien irizpide



Ararteko erakundearen lan taldea

edo usadio zenbait aldatu beharra iradokitzen dira, betiere gizabanakoen eskubideak hobeki bermatzeko helburu hutsarekin.

1998. urtean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena oroitu dugu. Arartekoak zenbait ekimen bultzatu ditu eta ikastaro eta jardunaldietan hartu du parte laguntza eske etorri zaizkion gizarte-eragile guztiekin elkarlanean.

Baina, batez ere, erakunde hau osatzen duen lantalde osoa urteak dituen egun guztietan ahalegindu da Aldarrikapen Unibertsalak gaur egun duen esanahia eta balio sakona egia bihurtzeko.

EL ARARTEKO
Xabier Markiegi Candina

ARARTEKOAREN JARDUERA ZENBAKITAN

• 1998. urtean 2.660 kexa jaso zituen. Erreklamazio hauetatik 1.143 bi kexa multzo berdin-berdinetan bana daitezke.

• Udalak dira kexa gehienak (%48) eragiten dituzten administrazioak. Jarraian Eusko Jaurlaritza (%34,5) eta Foru Aldundiak (%16,5).


• Ogasuna da erreklamazio gehien (%16,84) jasotzen dituen jarduera alorra, Osasuna eta Gizarte Ongizateak jarraiturik (%13).

• Administrazioek kasuen %63,2an onartu dituzte gomendioak.

• 3.088 herritarrek bisitatu dituzte Vitoria/Gasteizko, Bilboko eta Donostiako harrera zuzeneko bulegoak.

• Erreklamazioak balorazio ona ematen diote Arartekoaren eskubartzeari eta horietatik %91,9k, beti edo kasu jakin batzuetan erakunde honetara jo dezatela gomendatuko lieke administrazioaren batekin arazoak dituztenei.

ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-1998)



* 1.143 kexa Erretoretan bi kexa multzo berdin-berdinetan banatu dira.

KEXEN JATORRIZKO LURRALDEA



Datu orokorrak

Erakundeak aztertu eta beren tramitazioa 1998. urtean amaitu duten kexen artean %30,67 kasutan eman zaio arrazoi hiritarrari. Kasu horietan, eragindako administrazioak Arartekoaren gomendioa jaso du, gaitzestutako jardueraren ondorioak konpon zituzten.

Nabarmendu behar da Arartekoak erreklamazioak arrazoi eman dion kasuen ia bi herenetan (%63,2) Arartekoak egindako gomendioa bete izan dela euskal administrazio publikoren baten jarduerazuzena ez zela ikusi ondoren. Gora egin du, beraz, aurreko urtearekin alderatuz (%55,40), administrazioen aldetik onartze mailak Arartekoaren gomendioak dagokionez.

Joan den 1998. urtean, 2.660 kexa aurkeztu zitzaizkion Arartekoari, 1997. urtean baino %33,6 gehiago. Guztici eman zaie banakako tratua, baina berezitasun bat aipatu behar da: bi kexa multzo berdinekin 1.143 espediente pertsonal osatu dituztela guztira. 2.660 kexa horietan gehienak norbanakoek aurkeztuak dira, baina 212 erreklamazio aurkeztu dituzte taldeek, adibidez auzo elkarteek, erreibindikazio jakinak eskatzeko plataformek, sindikatuek, talde ekologistek, etab.

Arartekoak jasotako erreklamazio guztiak ez dira aztertzen. Arrazoi ezberdinak direla eta, batzuk ezin dira onartu. Horrela, 1998. urtean 189 bota dira atzera, gehienetan alde aurretik epaitegien aurrean aurkeztuta egoteagatik, Arartekoaren eskumenaz kanpoko arazoa izateagatik, edo norbanakoaren arteko arazoak zirelako. Beste 184, gainera, Herri Defendatzaileagana eta beste autonomietako defendatzaileengana bideratu dira, hauen kontrol eremuan dauden administrazioen jarduerari dagozkionak.

Kexak gai-alorren arabera aztertzean ikusten da 1998. urtean Ogasun alorrean jaso direla kexa gehienak (189), ondoren Osasuna eta Gizarte Ongizatearen alorrean (146). Aurreko urtearekin alderatuz, igoera nabarmena egin dute Ogasun alorrari dagozkion erreklamazioek, eta jaitsiera handia, berriz, Funtzio Publikoari dagozkionak. Jaitsiera honek

badu zerikusirik seguru asko lan eskaintza publiko, lehiaketa eta lekualdaketen gutxitzearekin.


Kexak zein administrazioari zuzendu zaizkion begiratu ikusten da orain arte ez bezala 1998. urtean udal administrazioak erreklamazio gehiago eduki dituela (540) Eusko Jaurlaritzak baino (388). Foru aldundiak oso atzean geratzen dira, 184 kexekin.

Hauk dira kexa gehien izan dituzten udalak: Bilbao (110), Donostia/San Sebastián


(73), Vitoria/Gasteiz (46), Getxo (13), Irun (13), Barakaldo (11), Basauri (11), Lasarte-Oria (10), Arrasate (9) eta Laudio (9).

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Hezkuntza eta Osasuna izan dira kexa gehien jaso dituzten sailak, 90a zehazki. Azkenik, foru aldundiei bagazozkie, 110 erreklamazio jaso dira Bizkaikoaren kontra, 45 Gipuzkoakoaren kontra eta 25 Arabakoaren kontra.

ZUZENEAN IZAPIDATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUKETA ALORREN ARABERA*




ZUZENEAN IZAPIDATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTrazioEN ARABERA



ERREKLAMAZIAILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA

- Emakumeek kexa portzentaia handiagoa aurkeztu dute urte urte gizonen aldean: 1998. urtean %45,19 izan dira emakumeen kexak, 1997. urteko %39,38ren ondoan.
- Euskaraz egindako erreklamazioak 67tik 126ra igo dira urtebeteko epean.
- Gero eta joera handiagoa dago kexak postaz bidali ordez harrera zuzeneko bulegoetan aurkezteko (%78,34 zehazki 1998. urtean).

JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




Herritarrentzako harrera zuzeneko bulegoak

Gero eta joera handiagoa nabari da kexak Arartekoaren harrera zuzeneko bulegoetan aurkezteko, faxez edo postaz egin ordez. Izan ere, 1995. urtean erreklamazio guztien artean %30,48 aurkeztu ziren aurrez aurre. Aldiz, 1998. urtean, %78,34. Honen lagungarri gertatu da, dudarik gabe, 1996. urteko uztailean eta irailean, hurrenez hurren, Donostiako eta Bilboko harrera zuzeneko bulegoak zabaldu izana, jadanik Gasteizen martxan zegoenari gaineratzen zitzaizkiolarik. Ararteko erakundearen herritarrengana hurbiltzeko filosofiaren baitan sartzen zen bulego berriak zabaltze hau, euskal administrazio publikoren batekin edo honen menpeko zerbitzu publikoren batekin arazoak dituzten pertsonen era erraztean jo ahal izan dezaten beren eskubideak babesteko zeregina duen zerbitzura.

3.080 herritar joan dira bulegoetara, horietatik erdia Bilbaon, %32 Donostian eta gainontzeko %18 Gasteizen. Guzti horietatik %66,87 gauzatu dira kexa bezala.

1998an HARRERA ZUZENEN BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)



Harrera zuzeneko bulegoetara jo duten gizonak gehiago izan dira (%50,45) emakumeak baino (%39,25). Bikoteak ia %6 izan dira eta talde handiagoak %5.

Bulegoak bisitatu dituzten pertsonen adinari bagazokio, ia erdia 36 eta 55 urte bitartean daudenak izan direla ohartzen gara.


Nabarmentzekoa da, bestalde, kexatzera edo informazio bila bulegoetara jotzen duten 65 urtetik gorako pertsonen kopuru handia: 455 guztira.

OFIZIOZKO KEXAK

Herritarrek aurkeztuta Arartekoak aztertu dituen kexez aparte, erakunde honek bere kasa ikertu ditu euskal administrazio publikoaren ustezko jardura irregularrak gerta zitezkeen kasu batzuk; beste kasu batzuetan berriz, lankidetzara edo zerbitzu berri bat eskaintzeko aukera ikusi denean ekin dio Arartekoak bide horri.

52 ofiziozko kexa tramitatu dira guztira. Kexa gehienek Osasuna eta Gizarte Ongizate arloko jarduerekin zuten zerikusia, ofiziozko jardueren hiru laurden baino gehiago hartu baitituzte. Administrazioei bagazokio berriz, udalak izan dira ofiziozko jardura gehienak eragin dituztenak.

ARARTEKOAREN OFIZIOZKO JARDUKETAK (1998)



ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZKO BALORAZIOA



Arartekoaren Joseba Lazpala Eusko Legebiltzarreko Lehendakari zentral urteko biostena aurkeztzen

Arartekoak kexa haren bideraketa amaitzen duenean galdeketa bat bidaltzen dio erreklamatzailari, nahi badu eta izenik eman gabe zenbait galderari erantzuteko eskatuz. Erakunde honetara jotzen duten herritarren ezaugarriak zehaztu eta erakundeak eskaini dien zerbitzuaz duten iritzia ezagutzeko dira galdeketa honen helburua.

Aurten, eman diren erantzunak aldekoak izan dira oso: jasotako galdeketa artean %86,10k oso ongi edo nahikoa ongi baloratu du oro har Arartekoaren eskuhartzea, ia %82,34ren aldean. Eta hori, nahiz eta kexen %30,67an besterik ez eman arrazoia erreklamatzailari Administrazioaren aurrean, ia %34,44ren aldean. Gainera, %91,90k dio beti edo kasu jakinetan Arartekoarengana jotzea gomendatuko liekeela administrazioaren batekin arazoak dituztenei. Emaitza hauek ondo erakusten dute erakunde honek ematen duen zerbitzua baliokoa dela, eta bertan lan egiten dugunontzat hori bultzagarri handi bat da erabiltzaileek preziatzen duten lan honetan jarraitu eta egunegun hobetzen ahalegintzeko.

Gas naturalaren alta eta ikuskapen eskubideak ordainaraztea legez kontrakoa izan zen GAS HORNIDURARAKO ENPRESEK ORDAINKETAK DEUSEZTU ETA JASOTAKO DIRU GUZTIA ITZULI BEHARKO LUKETE

Joan den 1998. urteko otsailean, Arartekoak bi ofiziozko jardura bideratu zituen, BilboGas enpresaren aurrean lehenik eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren aurrean ondoren, gas horniketari hasiera emateko momentuan ordainarazten zen alta eta ikuskapen eskubide deiturikoagatik egiten zen kobraketa legearekin bat zetorren ala ez argitzeko. Alde handia nabari zen, gainera, eskubide horien zenbatekoan, Arabako 7.000 pezeta ingurutik Bilboko 23.000 pezetataraino.

Arazoa aztertu ondoren Arartekoak atara zuen ondorioa honakoa izan zen: alegia, gas naturalaren banaketa sektore publikoak monopolio erregimenean ematen duen oinarritzko zerbitzu publikoa izanik, zerbitzuaz gozatu ahal izateko derrigorrezkoa den alta eta ikuskapen zerbitzuen ordainketa, herritarrak babesten dituen "lege erreserba" printzipioari lotuta dagoela. "Lege erreserba" honek esan



BilboGaseko bulegoa

(El Correo en argazkia)

nahi du demokratikoki aukeratutako ordezkariak finkatu behar dutela aurretiaz zerbitzuaren erabiltzaileei ordainarazi behar zaien zenbatekoa, eta ez emakidadun zerbitzuek berek. Baldintza hau betetzen ez bada, bidegabekotzat jo behar da kobraketa.

Eta horixe gertatzen zen hain zuzen ere alta eta inspezioen eskubideekin. Ez ziren lege mailako arau baten bitartez (Eusko Legebiltzarreko Lege baten edo Toki Ogasun Legeak babestutako udal ordenantza baten bidez) onartuak izan, hala beharko zukeen arren. Ordainarazte horiek ez ziren legearen babespekoak eta deuseztagarriak ziren beraz. Hala, bada, Arartekoak horniketa enpresei

gomendatu zien alta eta ikuskapen eskubideengatik kobratzeari utzi eta erabiltzaileei itzul ziezaitezela oso-osorik ordaindutakoa. Itzulketa hau ez da zatika baizik egin.

Era berean, Industria Sailari gomendatu zion konpon zezala oinarritzko arazoa, lege mailako arau baten bidez eskubideen zenbatekoa finkatuz. Industria Sailak kontu honi dagokionez ezer egin ez duen arren, urrian onartutako Hidrokarburoen sektoreko Lege estatalak alta-eskubide deritzenak jasotzen ditu bere testuan. Erakunde honek daukan jarreraren isilpeko aitortpena suposatzen du horrek.

Orduz kanpo utzitako zabor-poltsen ikuskapena: izen bat daraman dokumentu batek ez du frogatzen lege-hauslea hori denik eta inor ezin da zigortu datu bakar horretan oinarrituta



(El Correo en argazkia)

Arartekoak zenbait udalen aurrean eskuhartu du, Bilbao, Basauri eta Arrasatekoetan besteak beste, zaborrak uzteko ordutegia betetzen ez zela eta zigorrak ezartzen zituztelako; izan ere, kasu horietan, frogabide bakarra erabiltzen baitzen arau-hauslea nor zen jakiteko, alegia, poltsa barruan pertsona isunduarekin zerikusia zuten dokumentuak aurkitu izana.

Jardura hau legearen kontrakoa dela ebatzi du Arartekoak, isunduaren ustezko errugabetasun printzipioa errespetatzen ez delako: gerta zitekeena da halakoren izena daramaten dokumentuak barruan dituen poltsa beste norbaitek orduz kanpo utzi izana. Isuna ipintzeko froga erreala beharko lirake. Isuna indargabetu eta ordainarazitakoa itzultzea gomendatu du kasu hauetan Arartekoak. Gomendioa onartua izan da kasu guztietan.

ARARTEKOAK ARDURA HANDIAGOA ESKATU ZUEN IBARROLAREN OMAKO BASO MARGOTUAREN ZAINKETAN

Agustín Ibarrola artistak kexa bat aurkeztu zuen Omarko baso margotuaren zainketa-egoera txarragatik eta, bere ustez, kultur toki horrek ez zuelako jasotzen behar zuen atentzioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren lurretan kokatuta egon arren. Arartekoak arte toki hura bisitatu zuen, lanaren egileak lagunduta. Arazoaren xehetasunak zehazki ezagutu ondoren, Foru Aldundiari eskatu zion aurrerantzean basoaren berriztatze eta mantenimendu lanak Agustín Ibarrolarekiko elkarlan eta harreman estuan egin zitezela, ondorioak ahalik eta emankorrenak izan zitezen. Foru Aldundiak harrera ona egin zion gomendioari.



Xabier Markiegi eta Agustín Ibarrola kazetarekin Omarko basoan



José Luis Cakjare argazkilaria

Alkateek eta Foru Aldundiko arduradunek, Arartekoarekin batera, Aixolako urtegirako sarbidea inauguratu zuten

HAREN BITARTEKOTZAREN ONDORIOZ LORTUTAKO AKORDIO INSTITUZIONALEI ESKER, AIXOLAKO URTEGIRA DOAN ERREPIDEA BERRIA BEZALA DAGO

Bizkaia eta Gipuzkoako herri batzuetako (Eibar, Ermua, Zaldibar eta Elgetako) udalek Arartekoaren bitartekotza eskatu zuten, Aixolako urtegirako errepidea aspalditik oso egoera txarrean zegoelako, egin zenetik ez



Aixolako urtegirako bidearen inaugurazio eta jaitsiera

(El Diario Vascoaren argazkia)

baitzen inoiz konpondu, eta Eibar eta Ermua inguruko bizilagun asko eta askok erabiltzen zutelako presa inguratzen duen naturgune bikainera heltzeko. Errepide honek aipatu udalen barrutiak zeharkatzen ditu bere ibilbidean, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurretatik igarotzen da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den urtegirako sarbidea da. Hainbeste administrazio inplikaturik egotearen ondorioz, elkarren aitzakian egin beharrekoa egin gabe zegoen.

Alde guztiek bitartekotza onartu ondoren, Arartekoak proposatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zezala lehen konponketa edo

bidearen apainketa. Errepidean eskumena zuten bi foru aldundiek finantzatzeko zituzen lanak, bakoitzari zegozkion metroen arabera. Hortik aurrera, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien gain geratuko zen mantenimendua, errepideak lurralde bakoitzean zehar egiten dituen kilometroak kontuan izanik. Proposamen honen guztien onspena jaso zuen, dagozkion hitzarmenak sinatu ziren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egin ditu dagoeneko oinarritzko lanak: asfaltatzea eta seinaleak ezartzea. Inaugurazioa uztailaren 17an izan zen, txirinduzko jaitsiera eta guzti.



IRUN ETA HONDARRIBIAKO ALARDEAK

Era ezberdinean ospatu ziren aurten bi herri hauetako alardeak: emakumeek Irungo Alarde ofizialean parte hartu zuten, baina ez zuten beste hainbeste egiterik izan Hondarribiako desfilean. Euskal Herriko Auzitegi Gorenak 1998. urteko urtarrileko 16 eta 17an emandako epaien ondoren ospatzen ziren lehenak ziren, gainera. Hondarribia eta Irungo emakumeek bi herri horien jaietako ekitaldi nagusi diren alardeetan soldadu bezala desfileatzeko duten eskubidea aitortzen zuten espreski epai horiek.

Arartekoa, pertsonen eskubideak eta, besteak beste, berdintasun-eskubidea sustatu eta bermatzeko duen zeregina betez, Irun eta Hondarribiako alkateei zuzendu zitzaizkien 1996. eta 1997. urteetan, baina geroztik arazoak auzitarako bidea hartu duenez ez du 1998. urtean edukiarri dagokionez eskuhartzerik izan. Hala ere, Juana Mugarrietakoa elkartearen eskariz, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin jarri zen harremanetan Hondarribiako Alardea ospatu aurreko egunetan.

Hala, emakumeek Alardean parte hartzea eragotzi asmoz ordena publikoaren alterazioak gerta zitezkeela aurreikusita, Herrizaingo Sailburuarengana jo zuen, jakiteko zer neurri aurreikusita zeuden ordena mantentzeko eta, bereziki, emakumeek Alardean parte hartzeko eskubidea defendatu eta ahalbideratzeko. Besteak beste jakin nahi zuen parte-hartzaile guztien integritate fisiko eta morala babesteaz gain, Jaizkibel konpainia mistoak besteak bezala desfileatu ahal izateko bitartekoak jarriko zituzten. Azkenean, ordea, ez zuten desfileatzerik izan.

Gertakizunen nondik norakoa azaltzen zuten albisteek pentsarazten dute Herrizaingo Sailak pertsonen segurtasunari eman ziola lehentasuna, alde batera utziz Alardean parte hartu nahi zuten emakumeen eskubidea babestea. Hori dela eta, Alardea ospatu eta ondorengo Herrizaingoaren azalpenei erantzunez erakunde jagole honetara adierazi zuten, norbanakoen segurtasuna babesteari uko egin gabe, aurrera begira, Alardean desfileatzeko eskubidea ahalbideratzeko beharrezko diren neurriak ere kontuan izan beharko direla.



Irungo Alarde ofiziala eta Hondarribiako

(El Diario Vascoaren argazkia)

JUSTIZIA: ERREKLAMATZAILEAK MOTELTASUNAGATIK KEXU DIRA

Erreklamazio dextente jasotzen ditugu epaileen ebatzietan eta epaien betearazpenari dagokienez. Baina legez Arartekoak ezin du kasu hauetan esku hartu.

Justizia arloan tramitatzen ditugun kexak Justizia Administrazioak zerbitzu publiko bezala duen funtzioamenduari buruzkoak dira, hau da, justizia bulegoen zereginari dagozkion usteko irregulartasun edo zabarkeriarengatik. Kasu hauetan aztertu edo erabakitze gaitasuna duen organoari bidaltzen zaio kexa, hots (orain arte ia beti), Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren Gobernu Sailari.

Zenbait kexa notifikazio judizialak egiten diren moduari dagozkio eta Epaitegi Nagusiak inolako irregulartasunik antzeman ez duen arren,

Arartekoak iradoki du egokia izango litzatekeela gai honetaz gogoeta egitea. Pertsona batzuk zenbait epaitegitako bulegoetan jasotako tratua ziren kexu, ez zitzaizkela haiekin iritziz beharrezko informazioa eman.

Tramitazio eta erabaki judizialen atzerapenak dira oraindik ere kexa gehienek iturburua. Badirudi Justiziaren ohiko jarduerak luzeegia deritzela hiritarrei. Badira auziak legearen arabera oso epe laburrean erabaki beharko liratekeenak -etxea utziarazteko epaiketak edo behin-behineko neurriak onartzekoak, esate baterako-, baina egiaz hilabete askoz luzatzen direnak, horrek inplikaturik dauden pertsonen sortarazten dizkien eragozpenekin.



Euskal Herriko Auzitegi Gorenako epai aretoa Bilbon

(El Correoaren argazkia)

Deustuko Unibertsitateak ez du lege araudia betetzen hiru haur dituzten familia ugarien matrikuletan beherapenik egiten ez duelako

LEGEAK AURREIKUSI ISUNAK EZAR DITZALA ESKATZEN DIE ARARTEKOAK ERAKUNDEEI

Azken urteotan, eta baita 1998. urtean ere, kexa ugari jaso dira Deustuko Unibertsitateak beherapenik egiten ez duelako hiru seme-alaba dituzten familia ugarietako kide diren pertsonen matrikulan. Beherapen horiek bai egiten ditu, ordea, 4 haur edo gehiago dituzten familia ugarien kasuan. Egoera honek 1995. urtean izan zuen iturburua, legeak familia ugariaren kontzeptua zabaldu eta 3 seme-alabatik gora zituztenak halakotzat jotzen hasi zenean, eta ez ordurarte bezala 4tik gora zituztenak soilik.

Deustuko Unibertsitateak, bada, ez du betetzen familia ugarien babeserako legea, eta aurreneko kexak jaso bezain laister, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailera jo zuen Arartekoak, aipatu legeak aurreikusten duen isuna ezar zezan. Aldundiak erantzun zuen hori ez dagoela bere eskumenean. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari iritzia eskatuta, Arartekoaren uste bereko agertu zen, esanez baietz, foru organoek dutela gai horretan eskumena. Baina Bizkaiko Foru Aldundiak tinko jarraitu zuen zigortzeko eskumen hori ez duelako iritzian.

Hala, bada, bere hartan dirau kontuak. Deustuko Unibertsitateak matrikula horiei dagokien beherapenik egin gabe jarraitzen du.



Deustuko Unibertsitatea

(El Correoaren argazkia)



(El Diario Vascoaren argazkia)

EuskoTrenen Zumaia-Donostia autobus linean DESKONTU BONO BAT ESKAINTZEN ZITZAIEN GETARIA ETA ZARAUZKO IKASLEEI, EZ ORDEA ZUMAIKOEI

Egunkari bateko zuzendariari igorritako gutunaren bidez egoera bereberetan zeuden erabiltzaileei ematen zitzaizkien tratatua ezberdin honen herri izan ondoren, Arartekoak bere kabuz eskuhartzea erabaki zuen, ofizioz, eragindakoei kezarik aurkeztu beharrik izan gabe.

Arartekoak jakin ahal izan zuenez, Eusko Trenek tratu desberdineko jokamolde hori zuzentzeko argudiatu zuen Aintzira ikasle elkarteak Getaria-Donostia autobus-linea ustiatzen zuen garaitik Getaria eta Zarauzko erabiltzaileek zuten ikasle-bonoa mantentzeko konpromezua hartu zuela. Horren arabera, gainontzeko erabiltzaileak kanpoan geratzen ziren.

EuskoTreneko zuzendaritzari aditzera eman zitzaion jokamolde hori bidegabeko bereizkeriaren iturburu zela. Epe motzean Zumaia-Donostia autobus linea osoarentzat jarri zuen salgai konpainiak hileko abonoa.

FRANKISMO GARAIAN KLANDESTINITATEAN LAN EGIN ZUTEN ANDEREÑOEN PENTSIOA

Frankismo garaian andereño bezala lan egindako talde batek Arartekoarengana jo zuen esanez, garaiko egoera soziopolitikoak zela eta, urte haietan ez zutela gizarte-segurantzarekiko kotizazioa egiteko aukerarik izan. Gertakari honek ondorio txarrak izango ditu beraientzat pentsioa jasotzeko garaian, pentsioaren %100

kobratu ahal izateko beharrezko diren 35 urteetara iristeko falta zaizkien kotizazio urteak direla bide.

Andereñoek eskatu zuten beren egoeraren berezitasuna eta gizarteari egindako zerbitzua kontuan izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ordain zitzaizkion aipatu arazoetatik beren jubilazio-pentsiotik kenduko zitzaizkien kantitateak. Arartekoak hala eskatuta, datu konkretuak aurkeztu zituzten, neurri hori onartzeak dirutan zenbat suposa zezakeen baloratu ahal izateko. Guztia kontuan izanik, arazoizko eta legezko iruditu zitzaion eskaria eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzaren aurrean galdaketa egin zuen, egoki bazeritzen has zitazela tramiteak, araudirik egokienaren bitartez andereñoen eskaria gauzatu ahal izateko.

Ikastolen eskariz egindako bitartekaritza lanari esker VITORIA/GASTEIZKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ARTEKO HITZARMENA LORTU DA ZENBAIT IKASTOLEN KONTSERBAZIO ETA MANTENIMENDURAKO

Vitoria/Gasteizen kokatuta dauden Arantzabela, Abendaño, Odón de Apraiz, Toki Eder eta Barrutia ikastola publikoetako ordezkariak Arartekoaren bitartekotza eskatu zuten, ikastetxe horien kontserbazio eta mantenimendu egoerari irtenbide bat emateko.

Arazoa aztertu eta inplikaturako parteei informazioa eskatu ondoren, idatzi bat igorri zitzaizkien Gasteizko Alkateari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari. Bertan jarrerak hurbiltzeko ahalegin bat eskatzeaz gain, zenbait gogoeta jasotzen ziren Udalak ikastetxe hauen kontserbazio, mantenimendu eta zaintza bere gain hartzea baldintzatzen zuten puntuei buruz. Puntu hauek, ikastetxe-erakinen jabegoari eta honi zegokion aurrekontuaren transferentziari, garbiketa eta zaintza lanak egiten dituzten langileen trataerari eta ikastetxeak mantenimendu eta kontserbazio egoera onean entregatzeari zegokion, azken hau zelarrik eztabaidagai nagusia.

Azkenean, bi administrazioek erabateko akordia lortu zuten.



Arrasateko bizi eta Udalerri eroldan inskribatzeari uko egiten dien familietako kideak

(El Diario Vascoaren argazkia)

Arrasateko udalak uko egiten dio karabana batean bizi diren bi familia udal eroldan inskribatzeari LEGEZ KONTRAKOA DA UDALETXEEK BEREN UDALERRIAN BIZI DEN INOR ERROLDATZEARI UKO EGITEA, EDONOLAKOA IZANDA ERE HAREN BIZILEKUA

Joan den 1998. urtean, bizileku konbentzionalik ezean ohikoaz bestelako egoeran bizi ziren hainbat udal biztanle erroldatzeari udal batzuek emandako ukoari buruzko zenbait kexa jaso dira. Kasu guztietan Arartekoaren gomendioa izan da udalerrian bizi eta hala eskatzen duen edonor sartu behar dela udal erroldan, nolana hiko delarik ere haren bizilekua. Legeak eta, zehazki, 1997. urteko uztailearen 4ko Erroldari buruzko Ebazpenak dio, infra-etxebizitzak (txabolak, karabanak, haitzuloak, etab., eta are inolako aterperik eza ere) balioko bizileku bezala ager daitezkeela eta agertu behar dutela erroldan, errealitatean, batzuetan, hala dira eta.

Udalek harrera ona egin diote gomendioari, Arrasatekoak izan ezik. Kasu horretan, gobernuz kanpoko erakunde batek eskatuta esku hartu zuen Arartekoak, eta karabana batean bizi ziren bi familietako kideak erroldan sartzea gomendatu zion Udalari.

SEXU-ERASOAK JASAN DITUZTENENTZAT DAGOEN LAGUNTZA MEDIKURAKO PROTOKOLOA BETE BEHAR DUTE LARRIALDI-ZERBITZUEK

Sexu-erasoa jasan eta Osakidetzako eritetxe bateko larrialdi-zerbitzura jo zuen emakume baten kexa iritsi zitzaigun; bertan tratu desagokoa jaso zuela adierazten zuen, ez ziotelako inolako analisi ginekologikorik egin, azterketa hori funtsezkoa izan arren sexu-erasoen kasuetan. Erasoa Udaltzaingoan salatu zuen, eta udaltzaingoen oharrei jarraiki, larrialdietarako zerbitzu berberera itzuli zen, baina orduan ere ez zuen lortu beharrezko analisia egiterik, ez baitzegoen goardiako ginekologorik, esan ziotenez. Azkenean, emakumeak larrialdietarako beste zentro publiko batera jotzea erabaki zuen, eta han bai jaso zuen atentzio egokia.



Arartekoak kasu honetan esku hartu ondoren, Osakidetzak aditzera eman zuen larrialdietarako zentroak ez zuela bete sexu-erasoa jasan dutenentzat dagoen protokolo edo eskuliburu bateratuan agindutakoa, hala egin behar izango zukeen arren. Hori gertatu eta gero, aipatu eritetxeak berrikusi, ebaluatu eta bere barruan hobetu ere egin du kasu hauetarako duen jardueraren protokoloa.



Lanaren jardueran amiantoaren eraginak dakartzan arriskuak saihesteko FRENU ETA ENBRAGEAK MANEATZEN DITUZTEN AUTO-KONPONKETA TAILERRETAN AMIANTO NEURKETAK EGIN DITZAN ADMINISTRAZIOARI ZUZENDURIKO GOMENDIOA

Lanaren jardueran amiantoaren eraginpean egoteak kalte larriak ekar ditzake osasunarentzat, eta beraz lan-osasun eta segurantzara arauak oso zorrotzak dira minbizi-eragile honekin zerikusia duten enpresa eta langileen begiratze eta kontrolari dagokionez.

Herritar baten kexari jaramon eginez, gure erkidegoko erakundeek arazo honi ematen dioten erantzuna aztertu du Arartekoak eta prebentzio eta kontrol-neurrietan aurrerapen nabaria dagoela egiaztatu ahal izan du, hala osasunarentzat kaltegarri den amiantoaren eragina jasaten den lan-inguruei dagokionez, nola arrisku egoeran egon daitezkeen langileen geroko kontrolari dagokionez ere. Prebentzio eta kontrol programa hauek Amiantoarekiko arriskudun enpresen erregistroan (AAEE-n) inskribaturik dauden enpresetan ezartzen dira. Alabaina, agerian geratu da erregistro honek ez dituela barruan hartzen frenu eta enbrageak maneiatzen dituzten auto-konponketa tailerrak, azken hauek ez baitira amiantoarekiko arriskugarritzat jotzen.

Egia izanik ere auto alorreko enpresa berrietan ia erabat desagertu dela amiantoaren erabilera autoaren osagai hauetan, ez da ahaztu behar tailer asko eta askotan modelo zaharrak konpontzen direla oraindik eta hauen enbrage eta frenoek amianto eduki dezaketela. Hori dela eta, tailer hauetan aldiro-aldi inguruaren neurketak egitea gomendatu zion Arartekoak Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral/Osalari, langile talde honek jasan dezakeen amiantoarekiko arriskua kontrolatu eta aurrea hartzeko.



Arartekoa, Galdakaoko aldiak eta Zuatzaurreko bizilagunak hitzarmena izenpetzen

GALDAKAOKO ZUATZAURRE AUZOAN BIZILAGUNEK ETA UDALAK ZUTEN LISKARRA KONPONTZEKO BIDEAN DA ARARTEKOAK ESKUHARTU ONDOREN

Bizilagunek Udalaren aurrean bitartekotza egin zezala eskatu zioten Arartekoari, orain 20 urte hasi eta gaur arte zuten liskar bat konpontzen laguntzeko. 20 etxebizitzatako eraikin bat lurrera botatzea eskatzen zuten. 15 jadanik bukatuta zeuden eta 5 e-estruktura agerian zutela zeuden. Bizilagun hauen ustez arau-hauste larria egin zen, hirigintzari dagokionez, orain 20 urte eraiki zenean, hurbileneko bizilagunen lurrez jabetzeaz gain. Auzoak jasaten zuten utzikeria egoerari konponbidea eman ziezaion ere eskatzen zuten, gainera.

Aipatu etxebizitzaren egoera juridikoa aztertu eta bitartekotza egiteko Udalaren onespina jaso ondoren, Arartekoak eraikin honi buruzko txosten arkitektonikoa eskatu zion alde bietan onartutako tekniko independente bati. Txosten horrek esandakoaren arabera, alde batera utzi zen eraikina lurrera botatzeko aukera eta auzo osoaren gizarte eta hirigintzazko arazoak kontuan hartzen zituen proposamena aurkeztu zen. Bertan bizi kalitatea hobetuko zuten arkitektura eta hirigintza jarduerak proposatzen ziren. Auzoak epe motzean parke bat izateko konpromezuak eta epeak ezartzen ziren, giza eta kultur beharretarako lokala izendatzen zen, pertsona eta ibilgailuei sarrera erraztuko zien kale berria marrazten zen, etab.

Galdakaoko bizilagunekin eta Udalarekin hainbat bilera izan ondoren, bi aldeek proposamena onartu zuten eta Udalak Zuatzaurre auzoari dagokionez hartutako konpromezuak zehazten dituen dokumentua izenpetu zuten eragindako guztiek.

DONOSTIAKO HILERRIKO PANTEOIEIEN PROBLEMATIKA

Familiarteko hil baten izenean zegoen panteoia ondorengo izenean erregistratzea Donostiako Udalarik eskatutako pertsona batzuk beren kexak agertu zituzten. Kexa hauek aztertu eta udal ordenantzaren testua irakurri ondoren, Arartekoari iruditu zitzaion ehorzketa-eskubideen transmisioa deitutako tramitea egiteko ezarritako tasak neurrigabe garestiak zirela. Ez zen arrazoirik ikusten ordainarazitako kopuruen artean zegoen alde justifikatzeko: adibidez, guraso hilen izenean zegoen hilobi bakuna erregistratzea 25.000 pezeta kostatzen

zen; aldiz, birlobari bere berraitonaren izenean erregistraturik zegoen kapera bere izenean jartzea 1.000.000 pezeta.

Kobratzen dena tasa bat da, eta beraz, ezin da eskatu zerbitzua guztira kostatzen den baino dirukopuru handiagorik. Arartekoak sakon aztertu zuen arazoa ikuspuntu honetatik eta Udalarik iradoki zion tasa bakarra ezarri zezala ehorzketa-eskubideen gaurkotzearen kontzeptupean. Donostiako Udalak behin-behineko udal ordenantza bat onartu du bide honetatik; horren arabera, bizien arteko transmisioetan ordaintzen ziren tasak nabarmen murriztu dira eta pertsona hilen panteoien transmisio tasatan zegoen eskala-aniztasuna gutxitu egin da, tarifa bakarrera jotzea helburu izango dutela aginduz.

HILERRIA TOKIZ ALDATZEA ETA PANTEOI TRUKAKETA: KANPOSANTU BERRIAN, ZAHARREAN ZUEN LURRAREN HERENA ESKAINTZEN ZUEN UDALAK

1957. urteko hitzarmen baten bidez Arrasateko Udalak panteoitarako lurak eskaintzen zituen, diru-truke, noizbait hilerria beste toki batera eramanez gero, kanposantu berrian tamaina bereko lurak emateko baldintzarekin. Orain dela gutxi aldatu da tokiz hilerria, baina Udalak uko egin dio panteoien ordezkari kanposantu berrian azalera bereko lursail bat emateari. Aurrekoak hartzen zuenaren heren bat baino gehixeago zen saila besterik ez zien eskaintzen panteoien jabearen ondorengoei, eta bertan, nitxoan erdia besterik ez zen sartzen.

Arartekoaren ustez ez zen betetzen orain 42 urte hitzartutakoa eta Arrasateko Udalarik gomendatu zion 1957ko irizpidea errespetatuko zuen truke eskaintza berria egin zezala, hau da, neurri bereko lursaila izan zedila, nahiz ehorzte edukierari, nahiz haren azalerari zegokionez. Azkenean Udalak gomendioa onartu eta azalera berbereko saila eskaini zuen.



(El Diario Vascoaren argazkia)

Donostia eta Usurbilgo udalen aldetiko arreta-eza salatzen du kontzejuak ZUBIETAK EZ DU SANEAMENDU AZPIEGITURARIK



Zubietako arreta eza salatzen du kontzejuak (El Diario Vascoaren argazkia)



(El Diario Vascoaren argazkia)

LEGEA URRATUZ EGINDAKO TARIFA IGOERA

1998. urteko lehen egunetan Ararteko erakundea ohartu zen bidaiarien garraiorako enpresa publiko batzuek, Euskotrenek, Metro Bilbaok, Bilbobusek eta Donostiako Tranbia Konpainiak zehazki, urtarrilaren 1etik aurrera tarifa berriak kobratzen zizkietela bidaiariei, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian igoera horren berri hil horren erdira arte ematen ez zelarik. Jokabide hau legearen aurkakoa zen nabarmen, tarifa berriak aipatu EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zeudekeelako indarrean, ordura arte aurreko tarifak kobratu behar zirelarik.

Hala ere, enpresek beren buruak zuritu zituzten esanez, onartu eta 1998. urteko urtarrilaren 11 baino lehen Aldizkarian argitaratu zedin behar adinako aurrerapenarekin bidali zutela prezio berrien zerrindaren proposamena oniritzia eman behar duen Euskadiko Prezioen Batzordera. Argibide hauek, ordea, ez dute inolara ere justifikatzen Arartekoari eztabaidagarri deritzon kobraketa horren legez kontrakotasuna. Hala, bada, aipatu enpresen arduradunei zuzendu zitzaizkien gomendatuz, molda zezatela sistemaren bat bidaiariei, modu erraz eta azkarrean, bidegabeki ordainarazitako dirua itzultzeko. Gomendioa onartua izan zen.

Geroago, gomendio berdina egin zitzaion Gasteizko Tuvisa, garraio publikoko autobus konpainiari, honek ere, modu berean, legez kontra jokatu zuelako prezio berriekin. Enpresa honek, ordea, ez zien bezeroei bidegabeki ordainarazitako dirua itzuli.

Donostiako eta Usurbilgo udal-barrutiei dagokien Zubietako kontzejuak kexatu zen esanez haranak ez duela inolako saneamendu azpiegiturarik. Ondorioz bertako 400 bizilagunek, sarritan egoera txarrean dauden putzu septikoen bidez, edota Zubietako baratzak zeharkatzen dituzten karkaba eta ubideetara zuzenean isuriz kanporatzen dituzte beren hondakinak. Donostiako eta Usurbilgo udalek, batak nola besteak, dute horren erantzukizuna, ez baitute inolako inbertsiorik egin Zubietako harana azpiegituraz eta ekipamenduz hornitzeko.

Salaketaren nondik norakoak ezagutzeko Zubietara ikuskapen-bisitaldi bat egin eta beharrezko lege-azterketak burutu ondoren, Arartekoak Donostiako eta Usurbilgo udalei eskatu zien premia larrikotzat jo eta lehentasuna eman diezaiotela saneamendu sare bat hedatzeari, zegokion proiektu teknikoa idatzi eta 1999. urteko aurrekontuetan horren finantzaketa aurreikusiz. Donostiako Udalak gomendioa onartu eta udal aurrekontuetan partida bat izendatu zuen Zubietako ur erabilien kolektore baten egitasmoa finantzatzeko. Une honetan, bidean da saneamendu sarearen hedatze lanak egiteko proiektu teknikoa. Hala ere, badirudi aurrekontua ez dela nahikoa izango egitasmoa osorik betetzeko.

ERREPIDE BATEN ZABALTZE-LANEK SARBIDERIK GABE UZTEN DUTE LONJA- TAILER BAT

Basauriko bizilagun batzuek Arartekoarengana jo zuten, Bizkaiko Foru Aldundiak lonja baterako sarbidea zegoen lurra desjabetu zuelako 625-EN errepidea zabaltzeko. Lonja hori ibilgailu-konponketarako tailer bezala erabiltzen zuten, jarduteko arauzko lizentziarekin, eta sartzeko modurik gabe geratu ziren.

Lanak amaitu ondoren ibilgailuek ez zutela lonjara sartzerik izango eta oinezkoentzat ere sarrera zail gertatuko zela ikusirik, Foru Aldundiaren Hirigintza Sailari proposatu zitzaion sarbide berri bat presta zezala lonjaren beste alde batetik, tailerrak normaltasunez lanean jarraitu ahal izan zezan. Hala egin zen eta arazoa konpondu geratu zen.

Eskubide konstituzional bat aitortzeari uko egiten saiatu da **METRO BILBAOK** EZ DU ONARTZEN GARRAIO ZERBITZU PUBLIKO HORREN FUNZIONAMENDUAREN ONDORIOZ BERE INSTALAZIOETAN GERTATZEN DIREN ERORKETENGATIK EGINDAKO KALTEORDAIN-ESKAERARIK



Metro Bilbaoren Santutxuko geltokia

(El Correoaren argazkia)

Zenbait pertsonak kexa hau aurkeztu zuten, Metro Bilbaori egindako erreklamazioek ez zutelako inolako harrerarik izan. Enpresa publiko honek zera zioen, bera merkataritza-elkarte izanik, araudi zibilari jarraitu behar zitzaiola erorketen inguruko erantzukizunari zegokionez, eta araudi horrek ez duela erribidezko erantzukizuna baizik jasotzen.

Arartekoak, ordea, uste du zerbitzu publikoetan usadiozkoa den erantzukizun

objektiboa delakoa ezarri behar dela, hau da, soilik ondorioa kontuan hartzen duena. Argi dago Metro Bilbao E.A.ren helburua publikoa dela nagusiki eta, beraz, Konstituzioak agintzen dituen eskubide eta askatasunei lotuta dagoela. Azken honek bere 106.2 artikuluan dio partikularrek eskubidea dutela kalteordaina jasotzeko beren ondasun edo eskubideetan nozitutako edozein zauri dela eta, beti ere zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz gertatu bada.

Beraz, beste espediente bat zabaltzea gomendatu zen, Konstituzioaren xedapen horren arabera nozitutako kalteak Metro Bilbaori egotz zekizkiokeen ala ez segurtasun handiagoz argitzeko. Jasotako ezezkoaren aurrean, Arartekoak dio Metro Bilbaok lege-ordenamenduaz abusatu nahi duela, edota gutxienez ere, hartatik ihesi dabilela, aipatu eskubide konstituzionala aitortu nahi ez duelako.



DESKONTUAK A-8 AUTOPISTAN: TXARTELAK JAULKITZEN DITUZTEN AURREZKI ENTITATEEK EZIN DUTE INOR BESTE ORDAINKETARIK HELBIDERATZERA BEHARTU



(El Correoaren argazkia)

A-8 autopistaren erabiltzaileei Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek egiten dizkieten beherapenez baliatzeko, hitzartuta dauden zenbait aurrezki entitatek eskuratzen duten txartel bat behar da. Txartel hau lortzeko nahikoa da entitate horretan kontua izatea, autopista erabiltzeagatik egiten diren ordainketa eta deskontuak kontu horren bitartez bideratzeko.

Alabaina, Bizkaiko herritar bat kexatu zen esanez, txartelaren euskarri den kontu hori zahaldu ahal izateko beste ordainketaren bat helbideratzera behartzen zutela aurrezki kutxa horiek. Arartekoaren ustez jardura hau erabat bidegabekoa zen, eta Bizkaiko Foru Aldundia jakinaren gainean jarri zuen. Azken hau aurrezki entitate laguntzaile horiei zuzendu zitzairen ohartaraziz ezin dela inor beste ordainketarik helbideratzera behartu.

BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOAN POLIZIAK ATZERRITARREKIKO IZANDAKO JARDUERA

Orain urte eta erdi Arartekoak kexa eta informazio kezkarriak jaso zituen, Bilboko San Frantzisko inguruan poliziak atzerritarrekin izandako jarduerari buruz. Bilboko auzo honek ezaugarri bereziak ditu: hiri-inguru erabat hondatua, prostituzioa, droga trafikoa, atzerritar samalda, poliziaren presentzia... Inguru horretako pertsona eta elkarleen laguntzaz, zuzenean eragindutako pertsonen lekukotzak jaso zituen Arartekoak zenbait hilabetez; horietatik 38 aukeratu ziren, gehienak jatorriz afrikarrak. Ondoren, Arartekoak poliziaren arduradunekin eztabaidatu zuen egoera, inguru horretan lan egiten duten agenteekin elkarriketak izan zituen, polizien datuak aztertu, informazioak alderatu... Eta bere uste sendoa izan zen polizien zenbait jarduerak pertsona hauen eskubideak nabarmenki kaltetzen zituztela, ondorio larriak zituztelarik beren integritate eta duintasunarekiko. Droga irenstea eragozteko borrarakin eztabaia estutzeko ohitura, adibidez, edo komisaldegitik kanpo biluztaraztekoa. Zenbait jardura legez kontrakoak ziren argi eta garbi, eta beste batzuetan, berriz, erakunde honen ustez ez zegoen proportziorik gertakizunen eta lortu nahi ziren xedearen artean.

Jasotako informazioaren azterketa, eskubideak bermatzearen ikuspuntutik begiratuta Arartekoak egindako balorazioa eta zegozkion gomendioak Eusko Jaurlaritzako Herrizaintza Sailburuari eta Bilboko alkateari



Azteritar baten atxilotzea San Frantzisko auzoan

(El Correoaren argazkia)

aurkeztu zitzaizkion 1998. urteko martxoan, zehaztasunez beteriko txosten batean. Ordutik aurrera eta urte osoan zehar elkarlanean aritu dira Ertzaintzako eta Udaltzaingoko poliziarduradunak eta Arartekoaren laguntzaileak: kexen azterketa, kontrol mekanismoak, egunegun gomendioak ezartzeko moduak... Prozesu honen bilakaeran 14 lan bilera egin dira, hogeitabat dokumentu elkartrukatuta dira eta zenbait gai zehaztu eta iritzi kontrajarriak jasotzeko aukera izan da.

Abenduaren 24an, elkarlana amaituta, Arartekoak behin-betiko izazera eman zien bere gomendioei eta aipatu erakundeetara bidali zituen: Herrizaingo Sailera eta Bilboko Udalera. Pertsona hauen eskubideen aurka gerta daitezkeen edozein polizi jardura aurreikusitako, saihestu eta zuzentzea da eskuhartze honen asmoa. Horregatik, ez soilik gertakariak, baizik

eta baita beren balizko iturburuak ere aztertu ditu. Hala, bada, egiten diren gomendioak arazo ezberdinei dagozkie: inguruari eman beharreko lehentasuna integrazioarako baliabide eta bitartekoak jarritz, polizien aukeratze eta prestaketa, inguru horretako beste gizarte eragile batzuren eskuhartzea, polizien jardueraren prebentzio eta kontrolerako bitartekoak, koordinazioa, auzoaz edota etorkin taldeaz ematen den gizarte irudia...

Ertzaintzako eta Udaltzaingoko arduradunen erantzuna jaso ondoren, gai honekin zerikusia duten erakunde eta eragile guztiekiko elkarlana mantentzen jarraitu beharko da, eta onartutako gomendioen ezartze erreal eta praktikoaren jarraipena egin beharko da.



Bilboko San Frantzisko kalea

(El Correoaren argazkia)



Mahats-uzta Arabako Emiroran

(E) Correoren argazkia

ARABAN ARITZEN DIREN SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOAK

1995. urtean hasita, urtero egiten du erakunde honek Arabara mahatsa edo patata biltzera etortzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipena. Arazo iturri diren lau gai aztertzen dira: kontratazio sistemak, bizitokitizat dituzten lekuen egoera, seme-alaben eskolaratzea eta bizi duten gizarte integrazioa edo bazterketa.

Azken urte honetan zehar, langile hauen egoera hobetzeko aurrera eramán diren hainbat ekimenetan hartu du parte edota arretaz jarraitu ditu Arartekoak, eta 1998.eko kanpaina amaitzean bere bilakacerari buruzko informazioa

bildu zuen, bai eta zenbait ondorio atera ere. Sasoikako langileen eta beren familien bizi-baldintzei buruzko arreta gero eta handiagoa nabari da. Nekazarietara eta sasoikako langileei informazioa eta kontratazioa errazteko bi bulego zahaldu dira. Hau txit onurakorra gertatzen da, behar-beharrezkoa baita kontratazioaren zati handi bat kontrolatzen duten mafien ugaltzea eragozteko bitarteko guztiak jartzea. Bizitokiari dagokionez, gero eta zahalduago dago langileak eta beren familiak kontratazioa egiten duten nekazarietara berek prestaturiko lokaletan hartzeko ohitura. Egoera honek are beharrezkoago egiten du lokal hauek bete beharreko gutxieneko

baldintzak arautzea. Zoritxarrez sasoikako langileen eta beren familien ostatu baldintzei buruzko gomendioa ez da oraindik bete. Sasoikako langileen familietako seme-alaben eskolaratzea bide onetik doa.

Nekazaritza alorrean hitzarmenik ez egotea eta jatorrizko lekuetan kontratazio gutxi egitea dira arlo honek dituen arazo askoren iturburua. Behin eta berriro nabarmendu behar da, gainera, inplikaturik dauden erakunde ezberdinen arteko elkarlanak duen garrantzia.

Basauriko espetxeko esperientziak jasotako balorazio onak animatuta
XIRINGAK TRUKATZEKO PROGRAMA MARTUTENE ETA LANGRAITZERA ZABAL DADILA ESKATU DU ARARTEKOAK

Xiringak trukatzeko programa esperimentalak 1997. urteko uztailean ezarri zen Basuriko espetxean. Programa hau martxan jartzeko, espetxeratuek, laguntza elkarteek, Eusko Legebiltzarrak eta Arartekoak berak bultzatutako ekimen eta eskariak haterabildu ziren. Erakundeak partehartze zuzena izan du Programaren Jarraipen Batzordean eta batzorde honek balorazio ona eman dio esperientziari: programaren bideragarritasuna eta duen eragina egiaztatu ahal izan dira, ez da gorabehera esanguratsurik gertatu, merkea da...

Irizpen honek akuilatuta, xiringak trukatzeko programa, Martutene eta Langraitzeko espetxetara zabaltzea eskatu dugu behingoan eta beti ere zentroen onespenerekin. Era berean, beste herri defendatzaileei esperientzia honen berri eman zaie, beren lurralde-esparruan antzeko ekimenak bultzatu ahal ditzaten.



Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzardearen aurreko agerraldia HAUR BABESGABEEKIKO ATENTZIOA: 42 GOMENDIO

1998. urteko maiatzaren 20an *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei* buruzko ezohiko txostenaren ondorioak azaldu zituen Arartekoak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzardeko parlamentarien aurrean.

Txosten hau egiteko foru aldundien menpe dauden zentroetan jasotako 150 haur eta nerabeen espedienteak ikertu ziren arretaz eta dauden 63 atentzio-zentroak bisitatu ziren.

Arartekoak adierazi zuen, bai erakundeak eta bai atentzio-zerbitzuetako profesionalak, zerbitzu eta erantzun onuragarriak ari zaizkiela eskaintzen biztanle-sektore honen beharrei. Guztiarekin ere, badira hobetu daitezkeen aldeak. Hori dela eta, 42 gomendio egiten dizkie euskal erakundeek. Beste gai batzuren artean, gure Erkidego osorako balioa izango duen araudi bateratu baten beharra aipatzen da, eta egoera ezberdinei erantzuneko dien askotariko eskaintza haren beharra, gaurkoz etxe funtzional edo egoitzak direlarik eskaintzen diren aukera bakarrak. Arazo honi erantzuna emateko orduan lurralde historiko batzuen eta besteen artean dauden ezberdintasunak azpimarratzen dira. Babestu beharreko egoerak ezagutzeko bideak hobetu beharra ere aipatzen da. Beharrezkotzat jotzen da 18 urte betetakoan zerbitzu hauetatik irteteko programak garatuagoak egotea. Zerbitzu hauek erabiltzen dituztenek informazio gehiago izatea eta beraiekin zerikusia duten erabakietan parte hartu ahal izatea ere eskatzen da.

BABESIK GABEKO HAUR ETA NERABEENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUAK



Txostenaren azala

ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEAK



Txostenaren azala

Eusko Legebiltzararentzako ezohiko txostena, adin penalean dauden adin txikiko lege-hausleen kasuan erakundeek duten esku-hartzeari buruzkoa ARARTEKOAK BITARTEKO GEHIAGO ESKATZEN DITU ADIN TXIKIKO LEGE- HAUSLEEN BARRUALDIA MURRIZTEKO

Adin txikiko lege-hausleekiko esku-hartzeak uste baino garrantzi handiagoa du, urtero 800 adin txikiko inguru gertatzen baitira justizia-prozeduraren batean nahastuta. Barrualdi-zentroen sare zabalegi bat sortzeak ekar litzakeen ondorio txarrak azpimarratzen ditugu txosten honetan, neurri askoz ere pedagogikoagoak eta bergizarteratzea errazteko egokiagoak liratekeelarik beste neurri batzuk, zaintzapeko askatasuna edota komunitatearen aldeko zerbitzuan lan egitea, adibidez. Txostenaren aurkezpen ekitaldian, adin txikikoen justiziarako bitarteko gehiago eskaini dituzten eskatu ziren Xabier Markiegik euskal erakundeek, epaiak zuzen betetzeko beste bide batzuk daudela jakinda epaileek barrualdia aukeratu ordez beste neurri batzuk hartu ahal dituzten.

Giza eskubideen bermatzaile den aldetik Arartekoa kezkatzen duten beste gai batzuk ere ekarri zituen gogora: gertakizunen eta neurriak betearaztearen artean denbora gehiegi pasatzen da sarritan; ez dago legeria egoki eta finkorik adin txikikoen epaitegiek ezarritako neurriak nola beteko diren arautzen duenik; hezkuntza, osasun eta beste zenbait esparrutako zerbitzu arruntak oso gutxi inplikatu dira adin txikiko hauei erantzun bat ematerakoan; ezberdintasunak nabarmenak dira hiru lurraldeetan justizia ezartzerako garaian; eta gabeziak antzeman dira pertsonen eskubideen bermatzeari dagokionez.

Aipatu arazoak zuzentzeko, Arartekoak 46 gomendio aurkeztu ditu.



Xabier Markegi Arartekoak, Mercedes Agüñdez Ondokoia eta Faustino López de Foronda, erakundeak idazkari Nagusia, Juan Mari Atutxa Eusko Legebiltzarrako Lehendakariai brostenetako bat aurkezten

Pablo J. Platero/Argitaerak

ARGITALPENAK

Eusko Legebiltzarrari Txostena, aurreko urteko Arartekoaren jardura jasotzen duena. Txosten bereziak: *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak* eta Adin txikiko lege-hausleak. *Euskal Autonomia Erkidegoan seropositiboek jasaten duten bazterkeria soziala*, etakundearen beka baten bidez burutua. *Arrazagatik diskriminaziorik ez jasateko eskubidea*, izenburu berberarekin eta Arartekoaren parte-hartzearekin 1997. urteko Udako Euskal Unibertsitateko Kurtsoetan antolatua zen Jardunaldiko ponentzia eta txostenen bilduma. Bestalde, Valentín de Forondaren *Cartas sobre la policía* lana berrargitaratu da, 1820. urtetik hona lehen aldiz,

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena gogoratzeko.

Valentín de Foronda (Gasteiz, 1751-Iruña, 1821) itzal handiko arabar ilustratua, bizitza osoan zehar borrokatu zen lehiatuki absolutismoaren aurka eta herritarren askatasunen alde. Bere *Cartas sobre la policía* lanean, XVIII. mendean zorientasun publikoa deitzen zena eta gaur egun ongizate bezala itzuliko litzatekeena beren esku zuten agintari politikoek ontzat hartu beharreko politika eta neurri guztiak deskribatu zituen. Liburuaren atariko azterlanaren egile den José Manuel Barrenechea irakasleak adierazi bezala, *Ongizatearen politikari buruzko gutunak* izan zitekeen gaurko hitzetan liburuaren izenburua.



Ormairudi eta Giza Eskubideen Aldarrikapenen argitalpena

Urtero, abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin bat etorriz, Arartekoak Aldarrikapenari buruzko ormairudia argitaratzen du. Arrazismoaren kontrako mezua zeraman 1997koak eta giza eskubideen gaurkotatzea eta garrantzia 1998koak. Ormairudi hauek Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxeetan banatzen dira, neska-mutilek Giza Eskubideen Deklarazioa ezagu dezaten.

Iazko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ale txiki eta elebidunean argitaratzeari ere ekin zitzaion, era honetara Deklarazioaren zabalkunde lanean laguntzeko.





EHUn Uda Ikastaroak: Xabier Markiegiaren hitzaldia, goian, eta mahai inguru, behean.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean Udako Ikastaroetan Arartekoak antolaturiko Jardunaldia GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALAREN BALIOA ETA ETORKIZUNA BERE 50. URTEURRENEAN

1998. urtea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrenarekin batera zetorrelarik, Adierazpen honek XX. mendean bigarren erdialdean izandako garrantzia, gaur

egun duen axola eta aurrera begira izan dezakeen etorkizuna ziren gogoetagai. Uztailaren 3an egin zen Jardunaldia Donostiako Miramar Jauregian. Xabier Markiegi Arartekoa, giza eskubideen alorrean gaur egun munduan gaurkotatzen handienetarikoa duen gai batez aritu zen, besteak beste: Nazioarteko Zigor Auzitegiak. Auzitegi hau sortzearen alde agertu zen, scinalatuz beregaina, zuzena eta eraginkorra izan behar duela

Adela Cortina eta Javier de Lucas, Valentziako Unibertsitateko katedradunek Jardunaldian aurkeztutako ponentzietan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren bi berrikuntza nagusiak izan zituzten mintzagai gaur egungo ikuspuntutik begiratuta: ekonomi, gizarte eta kultur eskubideak lehen aldiz nazioarteko testu batean sartu izana, eta Deklarazioa maila unibertsalekoa izatea.


Mahai inguru batekin amaitu zen Jardunaldia, bertan Jaime Oraák, Andrés Krakenberger-ek eta José Juan Ortiz Bruk parte hartu zutelarik.



Hona hemen Arartekoak diruz lagundu eta argitaratutako *Euskal Autonomia Erkidegoan seropositiboek jasaten duten bazterkeria soziala* ikerlanaren ondorio nagusia: **GIZARTEA EZ DAGO SEROPOSITIBOekin BIZITZEKO PRESTATUA**

Ikerketaren egileak, Isabel Paula Sánchez García, seropositiboekin beraiekin elkarriketa asko izan ondoren burutu du lan hau. Argitalpenean jasotzen diren lekukotasun anitzek nabarmen uzten dute pertsona hauek gure Erkidegoan jasaten duten diskriminazioa. Diskriminazio hau ez dago erabat hedatua, baina askotan topatzen da.

Informaziorik eza eta HIESez kutsatzeko dagoen beldur irrazionala dira bazterketa-jarrera hauen iturburu. Bazterketari eta arbuioari ihes egiteko, eragindakoak HIES birusak kutsatuta daudela isilpean edukitzen saiatzen dira. Hala, Arartekoak argitaratutako lan honen agerian uzten ditu seropositiboek, ahotsik ez duen talde honen errealitate eta sentimenduak. Liburuaren egilearen ustez, gaitz hau heriotzarekin berdintzen duen mitoa gaitzen lagunduko duen informazioarekin soilik aldatu ahal izango du gizarte honen HIESarekiko duen jarrera.



KOORDINAZIO, ZABALKUNDE ETA IKERKETA EKINTZAK GIZA ESKUBIDEEN ALORREAN

Beste herri defendatzaileekin batera egindako jardunaldi eta kongresuak

Kanaria irletan egin ziren Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XIII. Jardunaldietan parte hartu zuen Arartekoak, Espainiako eta autonomia erkidegoetako defendatzaileekin batera. "Zenbait gogoeta herriaren defendatzaileen eta administrazio publikoen arteko harremanei buruz" izenburua zeraman ponentzia aurkeztu zuen erakundeak.

Liman (Peru) egin zen Ombudsman-aren Federazio Iberoamerikarreko III. Urteroko Kongresuan "Herri Defendatzailetza eta emakumeen eskubideak" gaiari buruzko lana aurkeztu zuen.

Europako Kontsiluko Idazkaritza Nagusiak antolatutako Europako Ombudsman-en 6. Mahainguruan bi komunikaziora hartu zuen parte: "Errefuxiatuen/asilo galdatzaileen eskubideak" eta "Askatasunik gabe dauden

personen eskubideak" lanekin.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena betetzen zela eta, Andaluziako Herri Defendatzaileak "Giza Eskubideetarako Heziketa" gaiari buruzko Jardunaldiak antolatu zituen Sevillan. Arartekoaren Idazkari Nagusiak, Faustino López de Forondak, parte hartu zuen jardunaldi horietan, "Giza eskubideen ezaketa asimetrikoa. Oinarrizko eskubideak eta askatasunak Espainian" izenburua zeraman idatziarekin.

Unibertsitateetan emandako hitzaldiak

Deustuko Unibertsitatea: Arartekoak "Giza Eskubideak, zatituriko mundu batean" zikloari amaiera eman zion, "50 urte geroago balantzea Euskadin" izenburua zeraman hitzaldiarekin.

Sevillako Unibertsitatea: Terrorismoari Buruzko Jardunaldietan Xabier Markiegi "Bakearen puzzlea" hitzaldia eman zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearen Leioako Unitatea: erakunde-buruak "Giza eskubideen bermeak" gaiari buruz hitzegun zuen.

Santiago de Compostelako Unibertsitatea: Unibertsitate honek Pontevedran antolatutako Jardunaldian "Giza eskubideak XXI. mendearen atarian" izenburua zeraman hitzaldia eman zuen Arartekoaren Albokoa den Mercedes Agúndezek.

Ikerketa beka eta eskoletarako materialen eraketa

Joan den 1998. urtean, aurreko urteetan deituriko hiru ikerketa beka interesgarri joan dira burutuz giza eskubideekin zerikusia duten zenbait arlotan. Hauek dira gaiak:

* Justizia, bakea eta giza eskubideen nazioarteko zaintza. Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Epaitegiaren esperientzia.

* Euskal Autonomia Erkidegoan seropositiboek jasaten duten bazterketa soziala.

* Komunitatearen eskuhartzea Euskadin, zokoratzearen aurkako borrokaren estrategia gisa.

Aurreko 1998. urtean deitutako ikerketa beka, hautaketa egin eta emana dago jadanik, eta etxe barruko indarkeriari buruzkoa izango da.

Bestalde, 1997. urtean hasita, giza eskubideen errespetuan heitzeko eskolarako materiala eratzeko beka deitzen ditu erakundeak. Beka hautetan lehena eman zitzaion lantaldea ari da dagoeneko moldatu materialak ikasgeletan saiatzen beren baliagarritasuna neurtzeko. Bekaren azken deialdira 33 proiektu aurkeztu dira.

Xabier Markiegi Arartekoa, Espainiako Herri Defendatzaileekin eta Autonomi Erkidegoetako Herri Defendatzaileekin Kanaria Handiko Las Palmasen, XIII. Koordinazio Jardunaldietan



Zure eskubideak defendatu beharra daukazu?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal Administrazio Publikoak zurekin gehiegikeriaz, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- Erakunde independentea da.
- Dohain eskaintzen den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egocrak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGIN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez. (Dato, 20-2.esk. 01005 Vitoria-Gasteiz)
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez

NORA JOAN?

Harrera Zuzeneko Bulegoak

Araban

Dato, 20-2. esk.
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18
Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Mazarredo, 15-5.a, A
48001 Bilbo
Tel.: 944 234 409
Faxa: 944 241 844

Gipuzkoan

Prim, 9 beheg, ezk.
20006 Donostia-San Sebastian
Tel.: 943 42 08 88
Faxa: 943 42 72 97

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu